

HEZKUNTZA FAMILIA UGARIETAN

Seme-alabak haztea eta heztea ez da lan erraza. Horretan behintzat, bat etorriko dira guraso guztiak. Aurreko belaunaldietan gertatzen ez ziren edo beste modu batzuetan konpontzen ziren zailtasunak dituzte gaur egungo familiek. Lehenik eta behin, lana eta hezkuntza uztartzeko zailtasunak izaten dituzte gehienetan. Gainera, denbora falta izaten dute, batzuetan gaur egungo neska-mutilentzat balio duten irizpideak ezezagunak zaizkie edo ez dituzte ezartzen eta, bestalde, instituzioen politikak ez du zailtasun horiek guztiak kudeatzen laguntzen.

Gainerako familiek baino seme-alaba kopuru handiagoa izateak familiaren hezkuntza-baliabideak gehiago banatzeko beharra ekar dezake eta, ondorioz, familia ugarietako gurasoek zenbait gomendio hartu beharko lukete kontuan.

Seme edo alaba bat baino gehiago izatekotan, funtsezkoa da ume bakoitza pertsona bakun gisa tratatzea, hau da, berezia dela sentitu behar du bakoitzak eta izaera desberdindua izan behar du (erditze ugariak dituzten familien kasua jar daiteke muturreko adibide gisa). Hori dela-eta, besteak beste, norbanakoen desberdintasunak aintzat hartu eta umeen arteko alderaketak saihestu beharra dago, gehienetan, ondorio txarrak izaten dituelako eta, batzuetan, norbanakotzea oztopatzen duelako, alegia, nor bere pertsonalitatea eta gaitasunak garatzea.

Familian, diziplina da kontutan hartzeko beste alderdi bat. Familia ugarien kasuan, egokia da seme-alabek zenbait erantzukizun hartzea, familia-lankidetzan sustatzeko (beste familia-eredu batzuetan ere egokia da, baina horietan, bereziki). Ildo horretatik, familiako kide guztiei eguneroko funtzionamenduan laguntza emateko aukera emango dieten lankidetzan irizpideak ezarri beharra dago. Horrela, eguneroko arazoak ebatziz gain, erantzukizuna, komunikazioa, talde sentimendua eta, ondorioz, autoestimua hobetuko dira.

Seme edo alaba bat baino gehiago duten familietan ager daitekeen beste ezaugarri bat bekaizkeria da. Familia-alderdi asko partekatu beharrak sentimendu horren agerpena bultzatzen dezake. Helduen afektua bilatzeko sentimendu sendoegia da bekaizkeria eta anai-arreba/neba-ahizpen arteko aurkaritzak eta gatazkak sor daitezke. Oro har, gatazkak euren kaxa konpontzen utzi behar diete seme-alabei eta behar handia dagoenean baino ez lukete esku hartu beharko gurasoek. Horrela, gatazkak modu autonomoan konpontzen ikasiko dute eta bizitzaren beste alor batzuetan ere aplikatu ahal izango dute.

LABURPENA

Familia-errealitate desberdinen eta euren zailtasunen barruan, problematika berezia dute familia ugariak, seme-alabak zaintzearen, heztearen eta eurentzat egokia den etxebizitza aurkitzearen kostua dela medio. Alderdi ekonomiko eta legalek egunerokotasunean garrantzi handia duten arren, familia mota zehatz horren haziera eta hezkuntza moduen erabilerari egiten diegu erreferentzia artikulu honetan.

ETXADI

Familia-psikologia Unibertsitate-zentroa

Centro Universitario de Psicología de la Familia